



ELGOIBARREN, 2026ko URTARRILAREN 18an IZANGO DEN

LXXXII. NAZIOARTEKO JUAN MUGUERZA KROSAREN ARAUDIA

1.- Lasterketak Elgoibarko Mintxeta zirkuituan izango dira.

2.- Federatutako lasterketa guztietan legez, **itzulia kendutako edo izateko puntuan dauden, atleta guztiak lasterketatik kanpo** geldituko dira. Hori dela eta, horiei dortsala kenduko zaie eta utzi egin beharko dute zirkuitua.

3.- IZEN EMATEAK:

- Nahitaezkoa izango da izena ematea kategoria GUZTIETAN parte hartu ahal izateko.
- Senior eta beteranoen artean ez da bereiztasunik izango, sailkapen eta sari bakarra izango dira, kategoria absolutua deituko da.
- 2025ko abenduaren 15tik, 2026ko urtarrilaren 14an bukatuko da 13:00tan
- **Gipuzkoako alebinak (sub-12) eta infantilak (sub-14)** [APP Sistema de Clubes](#) eta [APP Sistema de Centros Escolares](#)
- **Gipuzkoatik kanpoko alebinak eta infantilak**, Kirolprobak bidez [JUAN MUGUERZA 2026](#)
- Federatutako atletek (**sub-16, sub-18, sub-20 eta absolutua**), RFEAren CALL ROOM bidez nazio mailako edo euskal lizentzia dutenak.
- Federatutako atletek (**sub-16, sub-18, sub-20 eta absolutua**), Euskaditik kanpoko lurralde-lizentzia dutenek Kirolprobak [JUAN MUGUERZA 2026](#) bidez eman beharko dute izena. Eguneko Lizentziaren kostua 3 €-koa da (sub-16 ezik). RFEAren indarreko Lehiaketa Araudiaren arabera, beharrezkoa izango da eguneko lizentzia izapidetzea Euskaditik kanpoko eta RFEAren nazio-lizentziarik ez duten atletei.

4.- Dorsalak urtarrilaren 17an, larunbata, emango dira Elgoibarko Udalaren harreran, eta igandean, urtarrilaren 18ean, zirkuituko sarrera NAGUSIAN.

Kategoria guztietan korritu beharko da krosaren antolakuntzak ematen duen dortsalarekin. Dorsal horrek txipa izango du atzealdean.

5.- **Absolutu, junior (sub-20), jubenil (sub-18) eta kadete (sub-16) mailako atleta guztiak, dei kameratik** pasa beharko dute derrigorrez, eta bertan **NANa, lizentzia edo argazkia duen dokumentu ofiziala aurkeztu**. Alebin (sub-12) eta infantilak (sub-14)



ere dei kamaratik pasa beharko dira, identifikazioa ez da izango beharrezkoa. Txipa irakurriko zaie dei-kameraren sarreran.

6.- Dorsalik, gonbidapenik edo akreditaziorik ez dutenek sarrera ordaindu beharko dute: nagusiek 6€, jubilatuek 4€ eta hurrek 2€.

7.- Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, proba burutzen den bitartean edo probatik kanpo, ezbeharren bat gertatzen baldin bada.

8.- Proba honetan parte hartzeko, araudi honetan ezarritakoa onartu beharko da.

9.- Araudi honetan jasotzen ez diren gauza guztietarako kontuan izan beharko da World Athletics eta RFEAko araudiak ezarritakoa.

LXXXII. JUAN MUGUERZA NAZIOARTEKO KROSA

ELGOIBAR 2026-01-18

PROBA	ORDUA	DISTANTZIA	IBILBIDEA	URTEA
Emakumezko alebinak sub-12	9:30	1.363m	Pistari bira 1+ bira txiki 1	2014-2015
Gizonezko alebinak sub-12	9:45	2.052m	2 bira txiki	2014-2015
Emakumezko infantilak sub-14	10:00	2.452m	Pistari bira 1+ 2 bira txiki	2012-2013
Gizonezko infantilak sub-14	10:15	2.452m	Pistari bira 1+ bira txiki 2	2012-2013
Emakumezko kadeteak sub-16	10:30	3.141m	3 bira txiki	2011
Gizonezko kadeteak sub-16	10:45	3.141m	3 bira txiki	2011
Emakumezko jubenilak sub-18	11:00	3.449m	Pistari bira 1+ bira txiki 1 + bira handi 1	2009-2010
Gizonezko jubenilak sub-18	11:20	4.538m	Pistari bira 1+ 2 bira txiki + bira handi 1	2009-2010
Emakumezko juniorrak sub-20	11:40	5.535m	Pistari bira 1+ bira txiki 1 + 2 bira handi	2007-2008
Gizonezko juniorrak sub-20	12:10	5.535m	Pistari bira 1+ bira txiki 1 + 2 bira handi	2007-2008
Emakumezko absolutua	12:35	7.621m	Pistari bira 1+ bira txiki 1 + 3 bira handi	2006 eta aurr.
Gizonezko absolutua	13:15	9.707m	Pistari bira 1+ bira txiki 1 + 4 bira handi	2006 eta aurr.